


### 1.7.6. Elkarrizketa-testua



1. Definizioia

Solaskide bi edo gehiagoren arteko hitzeko elkartruke komunikatiboa da elkarriketa-testua, hitz-txandatan eta aurrez aurreko jardunean garatzen dena. Eguneroko bizitzako so-lasetan ez ezik diskurtso literarioko genero askotan ageri da: antzerki-gintzaren oinarria bera da; ez dago esan beharrik eleberrri, ipuin eta filmetako pasarte asko eta asko ere elkarriketa direla.

Plangintza- eta formalitate-mailaren arabera, bi multzo nagusi daude: bat-bateko elkarriketak eta elkarriketa planifikatuak.

- a) Lehen moldetako dira *bat-bateko solasa*, *telefonoko elkarriketa* eta antzekoak. Aipatu-tako bat-bateotasun hori bi ezaugarritan mamitzen da: batetik, hizketagaiak eta hortien-inguruko aldagai guztiak solaskideek berek aukeratzen dituzte eta, bestetik, ez dago aurrez izendaturiko txanda-legerik.
- b) Planifikatuak beste hauek dira: *ahozko azterketak*, *lan-elkarriketak*, *mahai-inguruak*, *debateak*, *galdakizunak*, etab. Bat-bateotasunik eza hainbat gertaerak salatzen dute: aurrez izendaturiko gai jakin bat egoten da, eta solaskideak horri arxiki behar zaizkio. Hitz egiteko txandak ere arauturik daude aurrez, eta beti dago norbait horiek kontrolatzen dituen: moderatzailea, mahai-inguru(et)an; irakaslea, azterke(te)tan; epailea, epaialke(te)tan; galdaketailea, komisaldegian...

Muturreko bi moduen artean —hots, bat-bateotasunik berehalakoaren eta planifikazio-rik estueneren artean— gradu-diferentziak daude. Komunikazio-egoerak zedarritzen du markoa: esate baterako, solaskideen estatus sozialak eta beren arteko erlazioak (ugazaba/behargina, guraso/semi-alaba...; adiskidetasuna/gorrotoa... izatea); edo hizketaldiko gaiak (serioa, irriargia... den aldetik); mintzatzen ari diren tokiak eta uneak, etab.

2. Testu motak

Erabilera eremuari begira, hona non agertzen den elkarriketa-testua:

Erabilera-eremua	Testu mota
Literatura	Antzezlanak, esketak, narrazio barruko elkarriketak...
Komunikabideak	Debatea, mahai-ingurua, inkesta, testa...
Eremu soziala	Lan-elkarriketa, batzar, eztabaida, debatea, informazio-elkarriketa...
Eremu pribatua	Solasa, eztabaida, debatea, mahai-ingurua, inkesta, galdetgia, elkarriketa...
Eskola-eremua	Elkarriketa (ahozko azterketak; informazioa lortzeko adituren bati egindakoa, etab.), galdetgia, mahai-ingurua...

3. Egitura

Solasteak inolako arau ezaririk ez badu ere, bost urratseko egitura jakin bat egoten da ia beti elkarriketa guztietan:

- Hasiera. Solas bat ez da gehienetan gai jakin batekin hasten, baizik eta, lehenagotik, agurak (Epal Kaijo: Aspaldikol, etab.), protokolo-galderak (Zer moduz? Zer berr? Etxean, ondo?, etab.), inguratzeak (E, aizu! Barkatu, andreal, etab.), besarkadak, musuak... egoten dira.
- Bideraketa edo orientazioa. Solasaldia irekitzeko erabilitako esaldien ostean, elkarriketako gairantz zuzentzen da jarduna, eta, horretarako, solaskidearen interesa bideratu nahi da ezer baino lehen (Ba al dekitu zer gertatu zizaiden atzo? Jakin al duzu azkenekoa? Bedut, ba, zurekin hitz egiteko arazoko bat. Gogoratzen al duzu atzo esan nizuna?, etab.). Gerta liteke gai bat baino gehiagoren aipamena egin izana solasean. Negoziazio moduko konponketa batez lortzen dute solaskideek gaien ordena bideratzea.
- Elkarriketaren muina. Hori da une nagusia, eta bertan jakinarazten, galdetzen, eskatzen, agintzen... dira direnak eta direlakoak. Elkarriketa askok gai bat baino gehiago izaten dutenez, normala da horietariko batzuk errepikatzea.
- Ondorioztapena. Elkarriketaren laburpena eta balorazioa egiten dituzten esaldiak ageri dira orduan (Hurrengoan jarraituko dugul Beno, esanak esan..., etab.). Memento honetan, azkeneko pausora iragan daiteke segidan, edo, berritro ere, beste gai bati buruz, 2-3-4 pasarteak (bideraketa, muina eta ondorioztapena) osatzen duten se-gida errekurrenteari ekin.
- Buakera. Solasaren azken balorazioa, berrien planifikazioa, agurrak, etab. Itxidura-for-mula asko daude, batzuk linguistikoak (Aguri Ikusi arte! Gorantziaz ebean! Beste bat arte! Deituko dizuti, etab.) eta beste batzuk paralinguistikoak (bostekoa eman, besarkatu, musu eman...).

4. Ezaugarriak

Testualak

- Txandak dira elkarriketaren giltza (bestela ez baita elkarriketa, bakarrizketa baizik), eta sortzen den testua solaskideek elkarrekin eraikitako elkartrukea da (galdera, eran-tzuu, agindu eta abarren bidez sortzen dena), eta bien arteko interakzioan (solasari ekit-eko, txanda aldatzeko...) gorpuztua eta itxuratua.
- Solaskideek euren inplizituak adosten, negoziatzen dute zer formalitate-gradu eman (zer erregistro) solasari, eta baita hitz egiteko modua zein izango den ere (tonua, erritmoa...).

Gramatikalak

- Joskera simple eta erraza.
- Digresio (hariarik joatea, alegia) asko dago; baita hitz-lelo edo komodinak, parafraasiak eta errepikapenak ere...
- Erregistro kolokiala, intonazioaren indarra, imintzioen ugaritasuna.